



## 5/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko maiatzaren 29an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña  
Aitor Manterola Garate  
Marina Bidasoro Arozena  
Asier Arakistain Alberdi  
Maite Egaña Larrañaga  
Itziar Etxabe Etxabe  
Unai Larrañaga Uranga  
Nerea Goiria Mendiola  
Jose Miguel Antia Albizu  
Joxe Mari Azkue Castillo  
Ainhoa Illarramendi Azkue  
Iker Mardaras Arrieta  
Xabier Odriozola Etxaniz  
Ander Olaizola Esnal  
Mireia Aranbarri Ieregi  
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Denak gaudenez hasiera emango diou. Arratsalde on denoi. Ohiko Osoko Bilkurari emango diogu hasiera.

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

#### **1.-AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA. (4/2025 zenbakia. 2025.04.30)**

Apirileko Ohiko Osoko Bilkurako akta onartu dute aho batez.



**2.- IRIZPENAK**

**2.1. UDALAREN AURREKONTUAREN 8. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA**

**“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000007-00 zenbakidun espediente onartzeko proposamena.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipaturako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakunde Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2025eko maiatzaren 21ean ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	291.867,25	79.932,57	211.934,68
	<b>GUZTIRA</b>	<b>291.867,25</b>	<b>79.932,57</b>	<b>211.934,68</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	171.572,46	79.932,57	251.505,03
	<b>GUZTIRA</b>	<b>171.572,46</b>	<b>79.932,57</b>	<b>251.505,03</b>

**Bigarrena.-** Kreditu transferentzien espediente onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.

Aldeko botoak: 5 (2 EH BILDU, 2 EAJ, 1 PSE)

Aurkako botoak:

Abstentzia:

Proposamen hau onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea



**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Bigarren puntuari irizpenak. Lehendabizikoa, Udalaren aurrekontuaren zortzigarren kreditu aldaketa onartzea, bidezkoa bada. Hemen daukazue zortzigarren kreditu aldaketa. Da 79.000 eurokoa eta batzordean aipatu gendun bezela, ba da Urola Kostako partidaren, ba bueno, ba mugitu edo batetik kendu eta bestetik ipintzea, besterik gabe. Galderik ez baldin badago, bozkatu eingo dugu.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

UDALAREN AURREKONTUAREN 8. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

**2.2. 2024-2034 EUSKARA PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA**

**IRIZPENA**

**ZUMIAIKO UDALEKO HERRIA BATZORDEARENA 2024-20234 EUSKRA PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO**

**AURREKARIAK**

2024ko udazkenean Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Eusko Jaurlaritzak ezarritako AROA markoaren barruan, hurrengo hamar urteetarako euskara plana osatzeko prozesuari ekin zion AHIZE-AEKren laguntzarekin.

Diagnostikoa osatu eta herriko hainbat eragile eta norbanakoekin egindako parte hartze prozesu baten emaitza modura planaren zirriborroa osatu da. Ondoren, ekarpenak jaso, moldatu eta behin betiko plana osatu da, eta Osoko Bilkuran onartzeko aurkeztuko da.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2025eko maiatzaren 21eko Herria Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

**Aldekoak: 7 (3 EH BILDU, 3 EAJ eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrakoak: 0**

**Abstentzioa: 0**



Aldeko irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2 eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- AROA markoaren baitan eraikitako 2024-2034 Euskararen plan estrategikoa onartzea.

Marina Bidasoro Arocena  
Herria batzordeko burua

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Bigarren puntua izango da 2024-2034 Euskara plan estrategikoa onartzea bidezkoa bada. Bueno Aitor, pixkat azalduko diguzu zertaz dijoan plana eta gero bozkatzera pasako gea.

**AITOR MANTEROLA GARATE:**

Bueno, arratsalde on danoi. Plana 24-34 urte arteko plan estrategikua da, landu genun udazkenlan AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzan laguntzakin. Eta plana bea, plan estrategikua bea Eusko Jaurlaritzaren AROA markuan barruan kokatzen da. Helburua, datozen 10 urteetako Zumaiako hizkuntza plana zehaztia ikuspegi estrategiko eta komunitario batetikan. Helburua, azkenean, misia edo esaten zakona, euskararen erabilera sustatzea arlo guztietan eta herritarren arteko elkarlana eta kontzientzia zuzena indartzea. Bere prozedura izangou zeak, planak, euskara mahai batean, jarraipenerako gune izango dena. Eta gero egongoia baita re transmisio bilgunia, kultura bilgunia eta kirol bilgunia. Bosgarren urtian berrikusiko da bost urteetan indakua. Aztertuko da. Eta bueno ba geo berriro aurrea jarraitzeko hurrengo bost urteetan.

Nabarmendu nahi degu Udal gobernutik oinarri ona dakala plan honek. Zeatikan? Ba diagnosia osatzeko prozesuan partaidetza oso handia izan delako.

Azkenian herri ariketa kolektibo bat in du Zumaiak euskeran inguruan. Bai herritar arruntak eta bai eragileak. Eta bueno muestra bezala ba galdetegi bat zabaldu zen herritarrek eta erantzuteko eta 283 herritarrek erantzun zuten. Alderauta Zumaia bezelako populazio, Zumaia bezelakuak dian herri batzuekin konparatuta, oso datu ona da, ez?

Gero eragileekin mahaiak sortu zian: arlo sozioekonomikua, hezkuntza eta familia, kirola, kultura, Oikiyak bere mahai propioa eduki zun. Ikastetxeetan ere galdetegiak propio bideratu zian eta erantzun zituzten. Eta gero baita ere, zeak, elkarriketa batzuk, 9-10 pertsona aukeratu eta ez danak



euskeran alde jarrera dakenak. Baita ere pixkat kontrakuak dianak. Hoiak e elkarrizketatu zian. Ta bueno esanda bezela, ikuspegi komunitario batetik indako lanketa kolektibo polita izan da, ez? Eta hortikan atera da, ba plana bea, ez?

Azkenian legealdi planian Udal gobernu honek dauzkan ekimen da programa askoren artian hau beste bat da eta bueno gauzatuta dago. Gauzatu degu. Oain falta da martxan jartzia.

Beste hainbat gauza ere in diteu bi urte hauetan euskera sailletikan, Udal gobernu honek, ba bueno euskeran historia sozialan dokumentala, "Appa hi" hitanua lantzeko aplikaziua, herriko hiru eskolei baliabideak eta programak eskaini, ba literatura, antzerkia, bertsolaritza... soziolinguistika re bai, irakasliek eta ikasliek lantzeko aurten. Ikasturte honetan, programa berri bat bezela. Udalian e euskera plana landu da ta in da 23-27 urte artekoa. UKTrekin lankidetzak, Imanol Azkueren liburua, lapetan lehiaketa. Ta hor e azkenian ikusten da, zeatik aipatuitut ekimen hauek danak, azkenian euskera plana beak ere holako ekintzak eta ekimenak hartukoitulako eta danetan elkarlana ikusten da, ez? Eragiliekin elkarlana eta ardura, ez? Euskerakiko ardura. Azkenian, ba bueno, euskerak bizik jarraitzeko, ze desagertzeko arriskuan dao, ta hori da realidadia, ba ardura dakau euskal hiztunok eta ardura horrei heldu diyo Udal gobernuak eragiliekin batea. Ariketa kolektibo polita in da eta bueno uain danan ardura izangoa plan hau aurrea eramatia datozen 10 urtetan.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Aitor. Zerbait komentatzeko? Bale.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

2024-2034 EUSKARA PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.



### 2.3.- 2026KO TOKIKO JAIEGUNA IZENDATZEA, BIDEZKOA BADA

**2025EKO MAIATZAREN 21KO ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, TOKIKO JAIEGUNA IZENDATZEKO. DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE “ANTOLAKUNTZA” DE 21 DE MAYO DE 2025 PARA DECLARAR UN DIA DE FIESTA LOCAL.**

#### AURREKARIAK

Apirilaren 8ko 82/2025 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2026 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu zen.

Aipatutako Dekretuko 2.2 artikulua arabera, Udalek dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean, tokiko jaiegunaren proposamena dagokion lurralde-ordezkaritzara bidali beharko dio.

Hortaz, 2026. Urterako tokiko jaiegun ofizial bezala, ekainaren 29a, San Pedro eguna proposatzen da.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko maiatzaren 21ko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka  
Kontrako bozka  
Abstentzioa

..... irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide

#### ANTECEDENTES

Por medio del 82/2025, de 8 de abril se aprobó el calendario oficial de fiestas laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2026.

El artículo 2.2 del Decreto mencionado establece que los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas y remitirlas a la respectiva Delegación Territorial que por ubicación les corresponda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de la publicación del Decreto mencionado.

Por ello, se propone que se declare el 29 de junio, día de San Pedro, como fiesta local para el año 2026.

#### DICTAMEN

En consecuencia, la Comisión Informativa de “Antolakuntza” de fecha de 21 de mayo de 2025, tras la siguiente votación:

Votos a favor  
Votos en contra  
Abstención

..... el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y



Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2. eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo

**PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2026. urterako tokiko jaiegun bezala, ekainaren 29a, San Pedro eguna izendatzea.

2.- Proposamena hau Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

someterlo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 22.2.l) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley mencionada, la siguiente **PROPUESTA**:

1.- Que se declare para el año 2026 como fiesta local el 29 de junio, día de San Pedro.

2.- Comunicar la propuesta a la Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa.

Asier Arakistain Alberdi  
Antolakuntza batzordeburua

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Bueno hor dakazuten proposamenean daukazuten bezala, datorren urtlan 2026an proposatzen da San Pedro eguna, astelehena dala, jaieguna izatla.

Aurten San Telmo eguna izendatu gendun bere garaian, igandea zalako San Pedro, baino bueno normalian San Pedro eguna izendatzen deu jaiegun bezala.

Ta besteik ez baldin bado bozkatu eingu degu.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

2026KO TOKIKO JAIÉGUNA IZENDATZEA SAN PEDRO EGUNA.



### **3.- PROPOSAMENA**

#### **3.1.- DEBEGESAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN 2. ERANSKINA ZUMAIAN ERKIBE LORATEGIA ETA SANTIAGOKO ARRAPALA AZPIPROIEKTUAK GAUZATZEKO EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN ESPARRUAN.**

Bale, laugarren puntua hemen ekartzen deuna proposamen bezela. Bueno, idazkariak eh bialdu zizuen korreo hortan azaltzen den bezela, da ba bueno ba asteleheneako deialdirako falta zian ñabardura batzuk lotzeko

Ta orduan egun bat beranduo ekarri gendun Osoko Bilkuran bozkatzeko. Eta bueno ba Debegesakin dakagun, zea, esto, lankidetzaren adenda bat. Bueno hortaz dijuala behintzat.

Lehendabizi bozkatuko dugu proposamen bezala ea eztabaidatzen dugun.

Proposamena eztabaidatzeko aldeko bozka?

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

Proposamena Osoko Bilkuran aurkeztea eta bozkatzea erabaki da.

### **OSOKO BILKURARA PROPOSAMENA**

#### **DEBEGESAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN 2. ERANSKINA ZUMAIAN ERKIBE LORATEGIA ETA SANTIAGOKO ARRAPALA AZPIPROIEKTUAK GAUZATZEKO EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN ESPARRUAN**

Udal honek honako helburu hau duen hitzarmena sinatzeko borondatea duenez:

1. 2023ko urtarrilaren 27an, Turismoari buruzko Konferentzia Sektorialak tokiko erakundeei eta tokiko garapen-agentziei zuzendutako Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Ezohiko Programako (PSTD) 2023 dirulaguntzen ezohiko deialdia arautzen duen dokumentua onartu zuen. Deialdi hori Europako funtsekin finantzatzen da oso-osorik, eta funts horiek autonomia-erkidegoei transferitzen zaizkie, eta haiek arduratzen dira funts horiek PSTD laguntzak kudeatzen dituzten erakundeen artean banatzeaz.

2. DEBEGESAk, udalerrien eta Deban 2009ko azaroaren 16an eratutako Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartearen (GEOGARAPEN) lankidetzarekin, Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Plana egin du. Plan horrek Euskal Kostaldeko Geoparkearen lurralde-eremua hartzen du, eta UNESCOk Munduko Geoparke izendatu du 2015ean, Deba, Mutriku eta Zumaia udalerriak barne hartzen dituen lurralde-eremua.



3. UDALAK, bere intereseko zenbait turismo-proiektu sustatu zituenak, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen DEBEGESArekin 2023ko martxoaren 1an, agentzia horrek laguntza-eskaera bat aurkez zezan 2023ko PSTD dirulaguntzen ezohiko deialdian. Eskaera horretan, Deba eta Mutriku udalerriak ere sartzen ziren, eta DEBEGESAk ere lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituen haiekin.

4. Lankidetzaz hitzarmen horien arabera, DEBEGESAk 2023ko Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planen ezohiko deialdian parte hartu zuen, eta proiektu bat aurkeztu zuen, "Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana – Euskal Kostaldeko Unesco Geoparked" izenekoa.

5. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta SETUREk baloratu zuten proiektu hori, eta 100etik 70etik gorako nota lortu zuen balorazio-irizpideetan oinarrituta, eta, horregatik, onartu egin zuten eta Euskadiko Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planaren parte izan zen.

6. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2023ko maiatzaren 9ko Konferentzia Sektorialaren erabakia betetz, 1.820.000 euroko ekarpena egin dio DEBEGESAri, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-programaren kargura (1228 programa, 12281 azpiprograma), DEBEGESAren PSTDko honako jarduketak hauek finantzatzeko:

Jarduketa ardatzak Ejes de actuación	Jarduketak Actuaciones	GUZTIRA TOTAL
1.. ardatza  Eje 1	1.1 Nautilus interpretazio-zentroa / Centro de interpretación Nautilus	400.000,00
	1.2 Algorriko birgaitze jasangarria / Rehabilitación sostenible de Algorri	400.000,00
	<b>Guztira 1. ardatza / Total EJE 1</b>	<b>800.000,00</b>
2. ardatza  Eje 2	2.1 Energia berriztagarriak eta energia-efizientzia / Energías renovables y eficiencia energética	410.000,00
	<b>Guztira 2. ardatza / Total EJE 2</b>	<b>410.000,00</b>
3. ardatza  Eje 3	3.1 Turismo-zerbitzuak digitalizatzea eta ukipen-pantailak ezartzea / Digitalización de servicios turísticos e implantación de pantallas táctiles	182.000,00
	<b>Guztira 3. ardatza / Total EJE 3</b>	<b>182.000,00</b>
4. ardatza  Eje 4	4.1 Historiaurreko harana / Valle de la prehistoria	253.000,00
	4.2 PR GI 44 Lastur Deba balioztatzea / Puesta en valor PR GI 44 Lastur Deba	130.000,00
	4.3 Kudeaketa-gastuak /Gastos de gestión	45.000,00
	<b>Guztira 4. ardatza / Total EJE 4</b>	<b>428.000,00</b>
<b>Guztira/Total PSTD</b>		<b>1.820.000,00</b>

7. 2023ko HTJPren Jarraipen Batzordeak 2024ko abenduaren 5ean egindako aldaketaren ondoren, jarduketak hauek egingo dira:



Jarduketa ardatzak Ejes de actuación	Jarduketak Actuaciones		GUZTIRA TOTAL
1.. ardatza	1.1	<b>Nautilus interpretazio-zentroa / Centro de interpretación Nautilus</b>	400.000,0
	1.2	<b>Rampa de Santiago / Santiagoko Arrapala</b>	128.364,2
Eje 1	<b>Guztira 1. ardatza / Total EJE 1</b>		<b>528.364,2</b>
2. ardatza	2.1	<b>Erkibe lorategia /Jardín de Erkibe</b>	271.635,7
	2.2	<b>Energia berriztagarriak eta energia-efizientzia / Energías renovables y eficiencia energética</b>	410.000,0
Eje 2	<b>Guztira 2. ardatza / Total EJE 2</b>		<b>681.635,7</b>
3. ardatza	3.1	<b>Turismo-zerbitzuak digitalizatzea eta ukipen-pantailak ezartzea / Digitalización de servicios turísticos e implantación de pantallas táctiles</b>	182.000,0
	Eje 3	<b>Guztira 3. ardatza / Total EJE 3</b>	
4. ardatza	4.1	<b>Historiaurreko harana / Valle de la prehistoria</b>	253.000,0
	4.2	<b>PR GI 44 Lastur Deba balioztatzea / Puesta en valor PR GI 44 Lastur Deba</b>	130.000,0
	4.3	<b>Kudeaketa-gastuak /Gastos de gestión</b>	45.000,0
Eje 4	<b>Guztira 4. ardatza / Total EJE 4</b>		<b>428.000,0</b>
<b>Guztira/Total PSTD</b>			<b>1.820.000,0</b>

Eranskin honen bidez, jarduketa hauek arautzen dira:

- a) Santiagoko Arrapala: 128.364,28 euro.
- b) Erkibe Lorategia: 271.635,72 euro.

8. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta DEBEGESAK hitzarmen bat sinatu zuten, Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana gauzatzeko, Euskadiko Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planari dagokiona, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan, zeina Europar Batasuneko Next Generation-EU funtsek finantzatzen baitute. Hitzarmen horretan honako hau ezartzen da: "Planaren jarduketa finantzarriak lortzeko beharrezkoa denean, erakunde onuradunak beharrezko esku-hartzeak egitea adostu ahal izango du lurraldeko beste administrazio publiko batzuekin, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez (hitzarmena, baliabide propioak, kudeaketa-gomendioa...)".

9. Lurraldearen Antolamendurako Planaren inbertsio-jarduerak udalen titulartasuneko ondasunetan gauzatu direnez, beharrezkoa da DEBEGESAREN eta udal bakoitzaren arteko hitzarmenak egitea, Plana behar bezala garatzeko eta gauzatzeko. Ildo horretan, komenigarritzat jotzen da udalerrietan aipatutako jarduketak udalek gauzatea, horiek betearaztearen ardura duten erakundeak diren aldetik. Jarduketak gauzateak ez du esan nahi udalerririk erakunde onuradunak direnik, DEBEGESAK du izaera hori.

10. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak idatziz jakinarazi dio DEBEGESARI Planaren "erakunde betearazlea" dela eta, ondorioz, ez dagoela behartuta udalerririk inongo azpiproiekturen erakunde betearazle izendatzera.

11. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak idatziz jakinarazi dio



DEBEGESari azpiproiektua gauzatuko duen organo kudeatzailea – erakunde betearazlea izendatu behar duela. Ondorio horietarako, DEBEGESaren eta UDALAREN arteko hitzarmenaren bidez, DEBEGESAK erakunde hori izendatu zuen 2024ko apirilaren 11an, azpiproiektuaren organo kudeatzaile – erakunde betearazle gisa, CoFFEE plataforman jarraipen-informazioa emateko, horretarako izendatutako idazkariaren figuraren bidez. Idazkari horrek sinatuko du, halaber, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 12. artikuluan aurreikusitako kudeaketa-txostena.

12. DEBEGESAREN eta UDALAREN artean 2023ko martxoaren 1an sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren lehenengo estipulazioan Hitzarmen hori eranskin edo gehigarrien arabera garatzea jasotzen zela; beraz, Eranskin honek DEBEGESAREN eta UDALAREN arteko lankidetzaren zehazteko beharrari erantzuten dio, Zumaian deskribatutako ut supra jarduketaren horietako bat gauzatzeko, zehazki Erkibe Lorategia eta Santiagoko Arrapala azpiproiektuak

13. UDALAK eta DEBEGESAK Eranskin hau sinatu nahi dute UDALAK Erkibe Lorategiko eta Santiagoko Arrapalako proiektuetako obrak zer baldintzatan egingo dituen zehazteko. 2023ko martxoaren 1an sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren eta 2024ko martxoaren 15an emandako 1. eranskinaren osagarria izango da Eranskin hau.

14. Bi alderdi sinatzaileek berariaz adierazten dute eranskin honen xedea ez dela UDALARI obrak egitea edo zerbitzuak ematea, hark ordaindu beharreko kontraprestazio baten truke.

Honako aurrekari hauek ikusita:

- DEBEGESAK bidalitako ERANSKINAREN hasierako testua
- Idazkariaren txostena 2025ko maiatzaren 27koa.
- 2025ko maiatzaren 27ko Kontu-hartzailearen txostena
- Osoko Bilkurarako Proposamenaren txostena, 2025ko maiatzaren 27koa.

Legez ezarritako izapideak egin ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 82.3 eta 91.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera

#### AKORDIOA

LEHENA. DEBEGESAREN ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN 2. ERANSKINA ZUMAIAN ERKIBE LORATEGIA ETA SANTIAGOKO ARRAPALA AZPIPROIEKTUAK GAUZATZEKO EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN ESPARRUAN behin betiko testua onartzea.

BIGARRENA. Alkateari eranskin hau sinatzeko baimena ematea.

HIRUGARRENA. DEBEGESARI jakinaraztea eta epatzea, goian aipatutako ERANSKINA sinatzean.

#### IDAZKARIA



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Alex, pixkat labur-labur azaltzen badiguzu.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bueno bai, bueno uste dut, dokumentazio guztia irakurri baduzue, ba bueno, hor agertzen dira apur bat aurrekari guztiak.

Hau dator, batez ere, abenduaren bostean, jarraipen batzordea, Jaurlaritza, Debegesa eta Udal guztien artean eratuta dagoen jarraipen batzordeak, 2022ko PSTDa baita 2023ko PSTDan sartzen diren proiektuei loturiko diru-laguntzak, ba horien jarraipena egiteko eta proiektu horien jarraipena egiteko dagoen batzorde horrek erabaki zuen, hemen behin baino gehiagotan azaldu izan dugun moduan, eta koadroetan azaltzen zaizuen moduan, hasiera batean jasota zegoen Algorriko birgaitze jasangarria egitearena, eraikin guztiarena, baina gero ondoren aipatu izan den moduan, ba zailtasunak ikusten ziren eraikin, gisa horretako eraikin babestu baseak interbenitzeko, proposatzen zen interbentzioa egiteko, alegia ezinezkoa zela. Eta hori dela-eta ba planteatu zan batzorde horretan beste bi egitasmo martxan jartzea horren truke.

Bata Santiagoko arrapala ya, bueno, proiektu bat erdi martxan zegoela eta urteetan, bueno urteetan, denbora bat zegoena hor dantzan eta gainera egin beharrekoa zena. Eta bigarrenik, Erkide lorategia bera, ba bueno, pues hor planteatzen zan Erkide eraikinaren aurrean, hor lorategian interbenitzea herritarrei zabaltzeko eta hor interbentzio nahiko erraz batekin pues hor bideratu ahal izateko.

Hortaz, hori onartu zen batzorde horretan. Abenduko batzorde horretan. Gertatzen dena da pues hori, ez? Gero honen kudeaketa luzatu zaigula batez ere hor proiektu batzuk egon direlako tartean. Uste dut azkeneko batzordeetan proiektu horien berri eman zaizuela. Eta klaro, proiektu hoiak e izan arte ezin genuen e izapidetu, ez genekielako zein zan kostua eta jakinda ere gainera, klaro, ematen dela, ematen digutela diru-laguntza zati bat, hau da, proiektuaren %100a ez dela finantzatzen.

Ba hortaz, ezinezkoa zitzaigun hori kudeatzearena ze klaro, alde batetik, lehenik eta behin jakin behar da edo bermatu edo ziurtatu behar dugu kreditu nahikoa dugula obra horrek kostatzen duen guztiari aurre egiteko. Bai? Hori dela-eta, ba klaro, proiektuekin ibili izan gera hor azkenengo momentuan aldaketatxo batzuk egin eta abar, eta bueno hori da apur bat arrazoia, atzerapenaren kontuagatik.

Proiektuak orain dela 2 egun onartu, 2-3 egun onartu dira eta horregatik ba berandu ibili gara, baina ezinbestekoa zitzaigun gaur hona ekartzea zeren lizitaziekin hasi behar gara, zeren hemen planteatzen den adendan, Moilaberrirekin egin zan kasi-kasi berdina da. Alegia, Debegesak transferitzen digu proiektu hauei loturiko digu-laguntzen kopurua eta udala da arduratzen dena prozedura guztiez, hau da lizitazio guztiaz eta ondorengo kontrol guztiaz, ez?



Orduan badakizue obra guzti hauek, ez bakarrik Zumaiak, baita ere eta Deba eta Mutrikun egin beharreko guzti hoiek bukatuta egon behar dira martxoaren 31rako, o sea, data hori da, ez dago luzatzeko aukerarik.

Hortaz, ba bueno, ba gaude horrela, proiektu guzti hauekin Udal guztietan horiek aurrera eraman ahal izateko eta horregatik ba bueno ezinbestekoa zan lizitazio hoiekin hastea orain ya martxan, ekainean, ya batzuk ya prestatzen ari gara pleguak ba... eta hori dela-eta bakarrik da, ba adenda honen onarpena.

Aurrekoak moduan Osoko Bilkurak hartu behar du erabakia. Hasiera bateko hitzarmena hala hartu genuelako eta hortaz, hau eranskin bat denez,

bertan baita ere organo honek hartu behar ditu, hartu behar du onartzeko erabakia. Eta bueno, ikusiko duzuenez, bueno akats bat zuzendu dugu.

Aipatu zizuen moduan gaur zuzendu dugu. Ba bueno, dantza bat egon da ta bueno, egia da hau Debegeстик jaso genuena, guk errepasatu genuena, baina bueno, pues joan zaigu. Dantza bat zegoen, aldaketa egon da.

Adendan ondo zegoen, gainontzekoetan, koadroetan eta abar, baina laugarren klausulan ba Erkiberi zegokien kopurua Santiagokoak zuen eta alderantziz. Hori aldatuta.

Eta hor ikusten dituzten baldintzak orain artean azkenengo adenda eranskinetan onartutako baldintza berdinak dira. Funtsean Debegeстик dirua transferitzen digu guk proiektu hauek lizitatu ahal izateko eta bukatu ahal izateko.

Eta hori da gaur ekartzen zaizuen zehazki Debegeстикaren eta Zumaiako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren bigarren eranskina,

Zumaiako Erkide lorategia eta Santiagoko arrapala proiektuak gauzatzeko euskal kostaldeko Unescoko parkearen helmugako jasangarritasun turistiko planaren esparruan behin betiko testu hori onartzea, atxikitu zaizuen.

Bigarrena alkateari eranskin hau sinatzeko baimena ematea eta ondoren Debegeстикari jakinaraztea eta haien ordezkariaren gerenteak sinatu dezake.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Alex. Zerbait komentatzeko badauzkazue? Bai. Esan, lker.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Kaixo, arratsaldeon guztioi. Gure botoa kontrakoa izango da, alde batetik edukiagatik, hor Erkibe proiektuaren inguruan, askotan adierazi dugun bezala,

ba Beheko plaza inguruan gu proiektua edo eremua bere osotasunean tratatzearen aldekoak gea.

Eta bueno, aktuazio konkretu hau egitea zatika edo azkenean partxe bat iruditzen zaigu. Eta horren ondorioz, ba, esan dudana bezala, eh kontrakoa izango dugu.



Formatikan? Niri piskat ulergaitza iruditzen zait sei hilabete ia irautea prezusu hau. Batez ere proiektuak zaharrak ez direnean. Arranplakin 2020tik gabiltza

eta ere bai Erkideren lorategia ere bere proiektuak eta bere lanketak e egon dia eta besterik ez. Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko. Zuk Duñike, zerbait komentatzeko?

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Bueno nik alde egingo detela etzaitelako iruditzen, horrelako diru-laguntza galtzeko aukerak izan behar dunikan.

Azken finean, proposamenak hor egon dira ta horrelako egoerak gutxitan egoten dira. Eta bueno ba espero degu proiektu onena izatea.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Duñike. Bueno nik erantzute aldea, Iker, ados. Proiektu integrala eta Beheko plaza ingurukoei osotasunean aztertzea ta lantzea ondo iruitze zait. Horreatik aurkeztu zitzaizuen aurreko legealdian da legealdi honen hasieran zein dan gure proiektua, Beheko plaza, Zuloaga plazako ingururako.

Ta zan Erki eraikina hartzen zuena, lorategia hartzen zuena eta baita ere beheko plazan estalpea, estalpe bat egitearena. Modu integralean aztertzen gendulako. Eta orduan aukera eduki dugu dio laguntza horiek ez galtzea aldea

ba hiru horietako ekimen horietako bat egin ahal izatia eta horregatik eramango dugu aurrera.

Aipatu duzun bezala, iruditzen zaizue hau zatika edo partxeoa. Ez dira sinonimoak. Gauza bat da proiektu orokor baten zati bat egitea eta bestia da partxeua. Proiektuik eztaonn toki batian zerbait hola presiuari sartzia eta ez dia gauza bea. Hau dana da proiektu bat, proiektu handi baten zati bat aprobetxatzia egoera egin ahal izateko. Besterikan ez.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Ñabardura bat besterik ez. Egia da proiektu integral bat aurkeztu zaan baina behintzat ez gure gustukoa, ze azken finean hor bazegoen estalpe bat gure ustez gaizki planteatuta, eta abar. Eta bueno hortik aurrera ez zan egon inolako elkartrukaketarik. Izan zan hau edo hau. Besterik ez. Eta dirua ez galtzearena eta diru-laguntza ez galtzearena beste proiektu bat aurkeztu zatekeen o ahal zitekeen. Behintzat adostasuna izateko, besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bai. Bukaeratik azalduko det. Ikusi zanian inguratzailia ezin zala egin Algorri eraikinean, etzian soilikan bi proiektu aurkeztu, baizik eta askoze gehio, landuta geneuzkan proiektuak eta izendatuta zeon klausulan edo edo epigrafean sartu ahal izateko aukeratuak izan zian edo onartuak izan zian bi hauek. Beraz, beste proiektu asko ere bazeuden, baino hauek izan zian onartuak. Eta aipatzen dezuten bezala, erabat zilegia da ados ez eotia.



Erabat zilegia. Zuek daukazue zuen proiektua. Guk dakau gure proiektua. Ta eon ginanian hitz egiten eztabaidatu genun orduan ere etzeundetela bate ados guk aurkezten gendun proiektuarekin. Geo, ba bueno oain dela gutxi azaldu duzue zuek ze proiektu dazkazuen Beheko plazarako eta ez du bat egiten guk dakaun proiektuakin. Erabat zilegia. Ta bueno hori da gauza bat eta beste gauza ba da, ba bueno ba esanez ez dala proiektua egin osotasunean. O sea hori eztakit ea nola adierazi dezaketen. Azkeneko kritika onargarria da eta eta hala da errealitatea. Zuen proiektua eta guria ez datoz bat. Baino ez dela osotasunian aztertu eta partxeua, hori, lehen aipatu dizut horrekin ezin naizela ados eon. Soilikan argi izatia.

Bueno bozkatu eingo dugu.

**Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV)**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

DEBEGESAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN 2. ERANSKINA ZUMAIAN ERKIBE LORATEGIA ETA SANTIAGOKO ARRAPALA AZPIPROIEKTUAK GAUZATZEKO EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN ESPARRUAN ONARTZEA.



**4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**

**4.1.- 2025EKO ERREPARO ORRIA ETA HAREN EBAZPENA JAKINARAZTEA KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (9/2025):**

**AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

**KONTRATUEN ERANSKINA**

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Eulen	Etxez etxeko laguntza	01/04/2022	2	2024/04/01
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

**Aplikagarria zaizkion arauak:**

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley



**General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.**

**Zehaztasunak:**

**21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazio fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtszko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."



1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

### **32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena**

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Aruaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.



c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteak akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedienteak onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/3/31	250109	ARAZI IKT, S.L.	Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa. 2018ko apirilaren 20an sinatutako kontratuaren luzapena. 2025ko martxo	5.442,82
2025/3/31	25A0003	UTE LV ZUMAIA	MARTXOA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua	34.060,87
2025/4/23	FOSO-15330	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	MARTXOA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	26.091,03
2025/4/28	FOSO-15681	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	URTARRILA AYTO ZUMAIA RREFERENTZIAKO EPEALDIAN ZERBITZUAGATIK SAD P	27.922,75
2025/4/30	154-2025	KALEXKA ELKARTEA	APIRILA-Zumaiako Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	9.796,48
2025/5/6	552/25	KASTORE GEST, S.L.	OXFORS JAI EGUNAK EGUN ARRUNTAK	1.212,48
2025/5/6	553/25	KASTORE GEST, S.L.	APIRILAK 24 4 ORDU MUNTAKETA	146,08
2025/5/6	556/25	KASTORE GEST, S.L.	San Telmoak hainbat lan	599,92
2025/5/5	25A0004	UTE LV ZUMAIA	APIRILEAN Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua	34.060,87
				<b>139.333,30</b>

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak eta kale garbiketa zerbitzuak

ESKU182f7fcd-073c-44e9-81b9-6549907fa34e



lehenasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.  
 b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

**ALKATE EBAZPENA**

**AURREKARIAK**

2025eko maiatzaren 9an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (9/2025) Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
2025/3/31	250109	ARAZI IKT, S.L.	Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa. 2018ko apirilaren 20an sinatutako kontratuaren luzapena. 2025ko martxoa	5.442,82
2025/3/31	25A0003	UTE LV ZUMAIA	MARTXOA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua	34.060,87
2025/4/23	FOSO-15330	EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS	MARTXOA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	26.091,03
2025/4/28	FOSO-15681	EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS	URTARRILA AYTO ZUMAIA RREFERENTZIAKO EPEALDIAN ZERBITZUAGATIK SAD P	27.922,75
2025/4/30	154-2025	KALEXKA ELKARTEA	APIRILA-Zumaiako Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	9.796,48
2025/5/6	552/25	KASTORE GEST, S.L.	OXFORS JAI EGUNAK EGUN ARRUNTAK	1.212,48
2025/5/6	553/25	KASTORE GEST, S.L.	APIRILAK 24 4 ORDU MUNTAKETA	146,08
2025/5/6	556/25	KASTORE GEST, S.L.	San Telmoak hainbat lan	599,92
2025/5/5	25A0004	UTE LV ZUMAIA	APIRILEAN Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua	34.060,87
				<b>139.333,30</b>

**ERABAKIA:**

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

ESKU182f7fcd-073c-44e9-81b9-6549907fa34e



Hemen aipatzen den bezala, diru kopuru bat 139.000 euro ordaintzen da iraungita dauden kontratu batzuetan. Hemen bai nahi dedala azpimarratu zerrenda hontan dauden kontratuetatik ba bueno argibide batzuk eman nahi ditutela.

Lehendabizikoa da eguneko zentrokukua, nun behin baino gehiagotan aipatu dugu hemen Aldundiaren eskumena da, baino esan zigunez, oaingo ez dute egingo eta guk lizitatu beharko dugu eta hurrengo hilabeteetan buru-belarri sartuko gea gizarte zerbitzutatik hori lizitatzea.

Beste alde batetik dao etxez-etxeko laguntzakua ya esleituta daona, baina dirudienez oraindik zintzilikan dazkau faktura batzuk. Horreatikan azaltzen da. Espero det azkenengo aldia azaltzia etxez-etxeko lagutzana. Bestia da kale garbiketaarena. Ya hasten dirana laster, ba bueno, zerbitzua ematen. Beraz, hau re esleituta dagoenez, epe motxian hemendikan kenduko da.

Dakagu baita ere Algorri kudeaketako, Arazikua. Hau, Algorri interpretazio zentrua edo museua edo dana delakua bukatzen daneako, ya ordurako aterako dugu kontratu berria eta hori ere bideratuta joango da.

Gero dakau baita ere beheruo Kalekka elkarteko, orain ematen duen zerbitzua atera dugu esku hartze psikosozialeko beste esparru, beste zea batekin, beste atal batzuk, dana batuta atera dugu. Aurkeztu zan beste enpresa bat eta baztertua izantzan. Beraz, berriro atera behar izan dugu.

Eta horiek dira zeuden kontrato entitate pixtekuak. Eta gero ya bestiak dia oso entitate gutxiko kontratuak.

4.2.- 2025EKO 1. HIRUHILEKO OBBE-A JAKINARAZTEA

PERIODO MEDIO DE PAGO (PMP)	
Entidad local:	ZUMAIA
Ejercicio:	2025
Trimestre:	Trimestre 1

Entidad	Operaciones pagadas		Operaciones pendientes de pago		PMP	Observaciones
	Ratio	Importe	Ratio	Importe		
81 ZUMAIA	10,01	1.988.521,59	3,46	499,16	10,01	
<b>PMP global</b>	<b>10,01</b>	<b>1.988.521,59</b>	<b>3,46</b>	<b>499,16</b>	<b>10,01</b>	

ESKU182f7fcd-073c-44e9-81b9-6549907fa34e



## 4.3.- 2025EKO 1. HIRUHILEKO EXEKUZIOA JAKINARAZTEA

## ZUMAIAKO 2025eko UDAL AURREKONTUKO GASTUAREN 1. HIRUHILEKO EXEKUZIOA

KAPITULOA	AURREKONTUA	BAIMENDUA	ERABILIA	OBLIGAZIOAK	%	ORDAINKETAK
1.- PERTSONALA	6.049.458,16	1.247.279,04	1.247.279,04	1.247.279,04	20,62%	1.247.279,04
2.- EROSKETAK	9.098.656,07	3.852.715,02	3.547.620,54	1.272.532,95	13,99%	970.099,15
3.- FINANTZA GASTUAK	3.700,00	109,16	109,16	109,16	2,95%	111,71
4.- DIRULAG.ARRUNTAK	1.705.965,14	608.846,64	397.322,45	329.195,65	19,30%	316.858,32
5.- KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK	39.715,00	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00
<b>GASTU ARRUNTA</b>	<b>16.897.494,37</b>	<b>5.708.949,86</b>	<b>5.192.331,21</b>	<b>2.849.116,80</b>	<b>16,86%</b>	<b>2.534.348,22</b>
6.- INBERTSIOAK	4.947.659,49	1.825.776,99	975.776,99	109.381,93	2,21%	109.381,93
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	0,00	0,00	0,00	#ZATI/0!	0,00
8.- FINANTZ AKTIBOAK	5.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00
9.- FINANTZ PASIBOAK	56.024,28	14.006,07	14.006,07	14.006,07	25,00%	14.006,07
<b>KAPITAL GASTUA</b>	<b>5.008.683,77</b>	<b>1.839.783,06</b>	<b>989.783,06</b>	<b>123.388,00</b>	<b>2,46%</b>	<b>123.388,00</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.906.178,14</b>	<b>7.548.732,92</b>	<b>6.182.114,27</b>	<b>2.972.504,80</b>	<b>13,57%</b>	<b>2.657.736,22</b>

**ZUMAIAKO 2025eko UDAL AURREKONTUKO DIRU-SARREREN 1.HIRUHILEKO EXEKUZIOA**

ESKUBIDE ONARTU GARBIAK KAPITULOA	B. betiko aurrek.	Eskubide onartu garbiak	BILKETA LIKIDOA		KOB RATZEKO		Itzulketak	
			%	Bilketa likidoa	%	Kobratz eko		
1.- ZUZENEKO ZERGAK	3.704.547,08	834.541, 07	22,53%	122.497,70	14,68 %	712.04 3,37	85,32%	0,00
2.- ZEHARKAKO ZERGAK	200.000,00	86.322,8 9	43,16%	82.839,19	95,96 %	3.483,7 0	4,04%	0,00
3.- TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	3.752.689,44	821.247, 95	21,88%	720.332,63	87,71 %	100.91 5,32	12,29%	0,00
4.- TRANSFERENTZ I ARRUNTAK	9.940.220,47	8.859.34 8,20	89,13%	2.025.977,35	22,87 %	6.833.3 70,85	77,13%	0,00
5.- ONDARE SARRERAK	132.617,92	16.105,4 6	12,14%	12.983,86	80,62 %	3.121,6 0	19,38%	0,00
<b>SARRERA ARRUNTAK</b>	<b>17.730.074, 91</b>	<b>10.617.5 65,57</b>	<b>59,88%</b>	<b>2.964.630,73</b>	<b>27,92 %</b>	<b>7.652.9 34,84</b>	<b>72,08%</b>	<b>0,00</b>
6.- INBERTSIO ERREALEN BESTERENG.	1.200.000,00	0,00	0,00%	0,00	0,00 %	0,00	0,00%	0,00
7.- KAPITAL TRANSFERENTZ IAK	504.093,54	92.651,2 3	18,38%	12.006,23	12,96 %	80.645, 00	87,04%	0,00
8.- FINANTZA AKTIBOAK	2.472.009,69	0,00	0,00%	0,00	0,00 %	0,00	0,00%	0,00
9.- FINANTZA PASIBOAK	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00 %	0,00	0,00%	0,00
<b>KAPITAL SARRERAK</b>	<b>4.176.103,2 3</b>	<b>92.651,2 3</b>	<b>2,22%</b>	<b>12.006,23</b>	<b>12,96 %</b>	<b>80.645, 00</b>	<b>87,04%</b>	<b>0,00</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.906.178 ,14</b>	<b>10.710.2 16,80</b>	<b>48,89%</b>	<b>2.976.636,96</b>	<b>27,7 9%</b>	<b>7.733. 579,84</b>	<b>72,21%</b>	<b>0,00</b>



**4.4.- UDALAREN 6. ETA 7. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZTEA**

**6. KREDITU ALDAKETA**

**2025ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.**

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0900.626.920.01.01 2024	INBERTSIO INFORMATIKOAK	25.863,66
<b>TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA</b>			<b>25.863,66</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
- b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
- c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
- d) Kapital eragiketen kredituak.

**2025ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa**

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	25.863,66
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>25.863,66</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera konpromisoak.
- d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.
- e) Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.

**7. KREDITU ALDAKETA**

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen	Azalpena	Kredituak
---------	----------	-----------



partida				
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.227.161.00.07 2025	FAKTURAZIO KODEA AZTERTU+ALDATU	0,00	11.105,00	11.105,00
<b>GUZTIRA</b>		0,00	11.105,00	11.105,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	11.105,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>11.105,00</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,  
Alkatea

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Seigarren kreditu aldaketan geratuko naiz, zeren batzordean galdetu zeniguten inbertsio informatikoen kopuruei buruz eta bueno, azaltzia aurrekontuetan 6000 euroko aurrekontu bat aurreikusten gendula. Gure idea zan ba bueno ba premiazko zeuden ba bueno ekipamenduak eta egin ahal izatea eta gero gerakinetikan ekarri, diruzaintzatik beste kopuru bat. Bueno ba bihar zian inbertsioak e gehiago egiteko. 25000 euro inkorporatu ditugu eta hoietatik 9000 inguru jungo da gaur egun zerbitzariak ya zazpi urte dazka eta eguneratu biharra daolako.

Beste kapitulu bat izango lirateke hainbat erabiltzailek ba bueno ekipoak berri bihar dituztela. Batzuk oandikan e Windows 7an daude eta ba bueno, ba berri behar dia bai ekipoak, eta bai Windowsko lizentziak, gutxi gorabeher, biyak kontutan hartuta ekipo bakoitza 900 bat euro dira. Beraz, hor dijoazten ekipoak.



Zumaiako Udala

2025IAKU0005

Eta gero baita ere argiteriaren telegestio komunikazioko sistema integratu behar da udaleko sisteman eta hor berrogeta zazpi koadroko lau georouterrak aldatu behar dira. Bakoitzak 70 euro inguru balio du. Beraz, hor dago beste kopuru bat.

Eta gero baita ere bilera-gela haundian, ikusi duzuen bezala, ipini dugu bideokonferentziak egiteko ekipo bat eta hori 3000 euro kostatu da. Beraz, horiek dira inbertsio informatikuan ipini ditugunak eta gauzatuko dienak. Zazpigarren kreditu aldaketa. Hemen dago, 11.000 eurokoa. Batzordean aipatu gendun bezela, fakturazio kodea aztertzeke, hau da, ordenantza fiskaletan uraren tarifaren akats bat eontzan onartu gendunetik GAOran eraman zana eta hori zuzentzeko ba ur-zerbitzuak kobratzen zirela diru kopurua. Lehendabiziko hiru hilabeteetan fakturatzeko beste kopuru batekin, ez gero e kobratu beharko genunarekin. Ba bueno, balantza baten ipinita ze koste zekan eta ze galera eukiko gendun ba ikusi gendun beharrezkoa zala, ba bueno, pasatzen ziguten aurrekontua onartzea.

#### 4.5.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkateak ebazpenen berri eman du.

#### 5.- ESKARI GALDERAK

Zerbait baldin badakazue?

Ba besterik gabe, ekaineko Osoko Bilkururarte.

Azkeneko zera bat. Eskatu digute Gure Esku Dagokoek argazki bat ateratzeko nahi dugun zinegotziak eta uain momentu batean aterako dugu.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita sei direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2025eko ekainaren 11n

Idazkaria  
ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)



EKS | CSV: ESKU182f7fcd-073c-44e9-81b9-6549907fa34e

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IAKU0005-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()